

## 593. ZENBAKIDUN ALKATETZAREN DEKRETUA

### **Planteatutako gaia**

Bermeoko hiribusa (BERMIBUSA) udal-garraio zerbitzua esleitzea.

### **Aurrekariak**

Lehenengoa: Kontratu administratibo berezia, prozedura irekia, bideratu egin da. Guztira enpresa bi aurkeztu dira:

- Excursiones Tuñez-Sanchez, S.L.
- Excursiones Urbano, S.L.

Bigarrena: 2014ko ekainaren 12an enpresek aurkeztutako "B" gutun-azalak ireki ziren eta Kontratazio Mahaiak eskatuta zegokion txostena egin zen 2014ko uztailaren 8an.

Hirugarrena: 2014ko uztailaren 15ean "C" gutun-azalak ireki ziren.

### **Argudioak**

Bakarra: Dokumentazio osoa aztertu ondoren eta kalifikatzeko sistema kontuan harturik, honako hau da jarritako puntuazioa:

<b>Eskaintzak</b>	<b>Eskaintza ekonomikoa (0-70)</b>	<b>Zerbitzu kudeatzeko proiektua (0-10)</b>	<b>Baliabideak (0-10)</b>	<b>Bestelako hobakuntzak (0-10)</b>	<b>GUZTIRA (0-100)</b>
Tuñez-Sanchez	67,19	5	10	5	87,19
Urbano	70	0	0	3	73

### **Erabagia**

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, honako hau erabagi dot:

BAKARRA: Bermeoko hiribusa (BERMIBUSA) udal-garraio zerbitzua Excursiones Tuñez-Sanchez, S.L. enpresari esleitzea, 92.727,27 eurotan (BEZ kanpo) urteko, BEZari dagokion kantitatea 9.272,73€-koa da (Guztira: 102.000,00€).

Bermeon, 2014ko abuztuaren 5ean  
ALKATEA

NIRE AURREAN  
JARDUNeko IDAZKARIA